

san agustin kultur gunea
durango

# 2020

urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza
enero, febrero, marzo, abril, mayo

## programazioa

# etxeko arauak
# normas de la casa



Gogoratu zuzeneko edozein emanaldi bakana eta errepikaezina da, eta gure arreta osoa merezi du. Horregatik eskatzen dizugu:

- **Garaiz iristea.** Konpainiak kontrakoa baimentzen ez duen bitartean emanaldia hasita badago ezin izango da aretora sartu. Eta ez da bermatuko txartelean markatutako eserlekuan esertzea.
- **Debekatuta dago argazkiak, filmazioak edota grabaketak egitea.** Konpainiaren eta aretoko arduradunen baimenik barik.
- **Mugikorrik ez erabili.** Utz ezazu telefona bakean. Bibrazioa kendu, eta gogoan izan albokoak eta antzezleak molestatzeaz gain, mezuak irakurtzen dituzun bitartean telefonoak aurpegia argiztatzen dizula, denon begi-bistan geldituko zara.
- **Umetxoentzako gurditxo eta aulkiak,** sarreran hobeto.
- **Zaindu dezagun denona dena**, areto barruan ezin da ez jan, ez edan.
- **Aretoak gurpildun aulkientzako sarrera eta guneak ditu**, horietakoren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan:
  Tfn. **94 603 00 21** Emaila: **sanagustin@durango.eus**

Recuerda, cada espectáculo en directo es un hecho único e irrepetible, merece toda tu atención.
Por eso pedimos:

- **Puntualidad.** Una vez comenzado el espectáculo sólo se permite la entrada si la compañía ha dado su conformidad. Y no se garantiza que puedan ocupar las localidades que tengan.
- **Prohibido fotografiar, filmar o grabar** el espectáculo sin autorización de los/as responsables de sala y los artistas.
- **No utilizar el móvil.** Dale un respiro a tu móvil, anula las vibraciones y recuerda que mientras miras los mensajes, el dispositivo ilumina tu cara y además de molestar a los de alrededor y artistas, todo el mundo te ve.
- **Las sillas y coches infantiles** mejor dejarlos en el Hall.
- Por el buen mantenimiento de la sala pública **no se pueden consumir comida ni bebida en el interior.**
- El teatro dispone de instalaciones y accesos **adaptados para sillas de ruedas.** Para garantizar esas localidades ponte en contacto:
  Tel: **94 603 00 21** Mail: **sanagustín@durango.eus**

# 2020

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

## urtarrila enero


| | | | |
|---|---|---|---|
| 12 | Tanttaka | ***Deje su mensaje después de la señal*** | 5 |
| 19 | Atx Teatroa | ***Kaskarot*** | 6 |
| 25 | Artedrama - Axut! - Dejabu | ***Zaldi urdina*** | 7 |


| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **1** | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29** | |

## otsaila febrero


| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Banarte Antzerki Taldea | ***Comunicado de muerte*** | 8 |
| 8 | Doss Colectivo | ***Gorpuztu*** | 9 |
| 16 | Txintxirrin Konpainia | ***Ehuna*** | 10 |
| 29 | Pez Limbo Teatro | ***El patio de mi casa*** | 11 |


| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | **21** | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

## martxoa marzo


| | | | |
|---|---|---|---|
| 7 | Grop Circo | ***Myres*** | 12 |
| 15 | Glu Glu Produkzioak | ***Marierrauskin*** | 13 |
| 21 | Javier Aranda | ***Vida*** | 14 |


| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | **2** | 3 | **4** | **5** |
| 6 | 7 | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

## apirila abril


| | | | |
|---|---|---|---|
| 2 | Txalo Produkzioak | ***Rita*** | 15 |
| 4 | Karrika Antzerki Taldea | ***Karrikan*** | 16 |
| 5 | Borobil | ***Hansel eta Gretel*** | 17 |
| 8-12 | Durangoko Klown Topaketa | ***Topaklown*** | 18 |
| 26 | Territorio Violeta y Clásicos Contemporáneos | ***El buen hijo*** | 20 |


| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | **3** |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

## maiatza mayo


| | | | |
|---|---|---|---|
| 3 | Marie de Jongh | ***Ikimilikiliklik*** | 21 |



antzerkia teatro





**10 €** (bazkideak 7,50 €)

**castellano**

**100 min.**

www.tanttaka.com

**Egilea / Autoría:**
Arantza Portabales

**Antzezleak / Reparto:**
Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Oihana Maritorena. Sara Cozar

**Zuzendaritza / Dirección:**
Fernando Bernués

urtarrilak **12** enero **igandea / domingo** **19:00**

# *Deje su mensaje después de la señal*

## Tanttaka Teatroa

Lau ahotseko istorioa da. Arazoei aurre egin ezinean dabiltzan lau emakumeren ahotsak dira, eta nahiago izango dute gertatzen zaien hori erantzungailu automatiko bati aitortzea. **Marina**k, **Carmela**k, **Sara**k eta **Viviana**k ahots-postontzia terapia gisa erabiliko dute beren burua ulertzeko, eta batez ere, besteek haiek uler ditzaten.

Pertsonaietako bakoitzak bere istorioa du, eta mezuz mezu azaleratzen doa ilun argitan. Pixkanaka kontakizun intimoen multzoa osatuz doa, batzuetan irrigarri, besteetan oso adimentsu, ia beti hunkigarri, eta tarteka suntsitzaile.

Una historia en cuatro voces, las de cuatro mujeres que incapaces de enfrentarse a sus problemas cara a cara, prefieren confesarse a través de un contestador automático. **Marina**, **Carmela**, **Sara** y **Viviana** utilizarán un buzón de voz como terapia para intentar entenderse a sí mismas y conseguir que las comprendan las demás.

Cada una tiene una historia, que mensaje a mensaje, se va dibujando a través de numerosos claroscuros, conformando una colección de relatos íntimos, que a veces resultan divertidos, otras sumamente inteligentes, casi siempre emocionantes y, a veces, también devastadores.

familientzako antzerkia
teatro familiar





**4 €** (txikitxartelarekin 3 €)

**euskaraz**

**45 min.**

www.atxteatroa.eus

**Egilea / Autoría:**
Gartxot Unsain Letona

**Zuzendaritza / Dirección:**
Atx Teatroa

**Antzezleak / Reparto:**
Maryse Urruty, Jon Koldo Vázquez, Natxo Montero, Gartxot Unsain

**Musika:**
Gartxot Unsain Letona

urtarrilak **19** enero **igandea / domingo** **18:00**

# *Kaskarot*

## Atx Teatroa

6 urtetik aurrera / A partir de 6 años

Ezberdina izateari beldurra, lehenengo harremanen lotsak eta «ni naizen hori» homonormatibitatearen aurrean defendatzea moduko gaiak azaleratuko dira, familia guztiari zuzendutako ikuskizun honetan.

Agure batek istorio bat kontatuko du. Aner gizarte distopiko batean bizi da, non dantzatzea debekatuta dagoen.

Anerri izugarri gustatzen zaio dantza egitea, eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot Anerren «alter egoa» da. Bere ingenio eta zentzuaren bidez, Anerri erakutsiko dio bere egoerari buelta ematen eta arauen aurrean bere adierazpen askatasuna lehenesten.

Kaskarot tratar de temas delicados como el miedo ante verse diferente, la vergüenza de las primeras tomas de contacto y el conflicto entre la defensa de tu ser interior frente a la homonormatividad, en una pieza para toda la familia.

Un anciano contará una historia. Aner vive en una sociedad distópica donde bailar está prohibido. En cambio, a Aner le encanta bailar, y eso le creará graves problemas.

Kaskarot es el alter ego de Aner. A través de su ingenio y sentido común, ayudará a Aner a dar la vuelta a la situación y a primar su libertad de expresión a las reglas existentes.

antzerkia teatro





**12 €** (bazkideak 9 €)

**euskaraz**

**90 min.**

www.zaldiurdina.eus

**Hauekin idatzia / Escrito junto a:**
Unai Iturriaga, Igor Elortza.

**Antzezleak / Reparto:** Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcala, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate, Olatz Beobide.

**Zuzendaritza / Dirección:** Ximun Fuchs.

**Zuzendariaren laguntzailea / Ayudante de dirección:**
Ainara Gurrutxaga.

urtarrilak **25** enero **larunbata / sábado** **19:00**

# *Zaldi urdina*

## Artedrama – Axut! - Dejabu

Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, tekno jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa bera delakoan.

Amets Aingeruren 22 urteko arreba errebeldea da, gaztetxe eta bizimodu osasuntsu zalea. Ikerketa bat hasiko du, Karmen amona eta Simon udaltzain traketsarekin batera.

Aingeru poliziek baino lehenago aurkitu behar dute, eta abokatu on batekin joan epaitegira. Astebeteren barruan, 18 urte bete baino lehen. Atzera kontaketa bat da.

Aingeru, un chico de 17 años, ha desaparecido tras la muerte de otro chaval, por infarto, en una fiesta tecno. Una nueva droga llamada caballo azul ha sido la causante y la policía trata de encontrar a Aingeru, sospechando que se trata del camello.

Amets, de 22 años, es la hermana rebelde de Aingeru, de gaztetxe y vida sana. Junto a la amona Carmen y a Simón, el antiguo policía municipal, decide investigar. Su objetivo es encontrar a Aingeru antes que la policía y llevarlo al juzgado con un buen abogado, pero deben hacerlo en el plazo de una semana, antes de que Aingeru cumpla los 18 años. Es una cuenta atrás.

antzerki amateurra
teatro amateur





**8 €** (bazkideak 6 €)

**castellano**

**75 min.**

http://comunicadodemuerte.tk

**Egilea / Autoría:**
Rafael Herce, Eduardo Pombar

**Antzezleak / Intérpretes:**
(Cuadro 1) Dolma Romera, María Otxandiano
(Cuadro 2) Mikel Uriguena, Rafa Herce

**Zuzendaritza / Dirección:**
Eduardo Pombar

otsailak **1** febrero **larunbata / sábado** **19:00**

# *Comunicado de muerte*

## Banarte Antzerki Taldea

*Comunicado de muerte* lanak, bi zatitan, askatasunaz eta guztion onuraz gogoeta egitea proposatuko digu, abiapuntutzat **David Mamet**en *La anarquista* eta **Salvador Puig Antich**en exekuzioaren ingurukoak hartuz. Oholtzan ikusiko dugu nola egoera jakinen aurrean pertsona batzuk mobilizatzen diren euren burua bera kausa handiago baten alde eman arte, eta nola hauen aurrean beste batzuk morroi bihurtzen dituen sistemaren erosotasuna eta defentsa aukeratzen duten, ongizate pertsonala bermatu asmoz.

Zati bakoitzean pertsonen arteko harremanen sakontasuna azalaraziko da, konbentzio sozial edo politiko guztien gainetik, boteretik ezarritako zuzentasunaren gainetik, gizon-emakume gordin eta biluziak euren zalantza eta erabakiekin erakusteko.

Inspirada en *La anarquista* de **David Mamet** y las circunstancias que condujeron a la ejecución de **Salvador Puig Antich**, *Comunicado de muerte* habla en dos cuadros sobre la lucha por la libertad y el bien común. La reacción de algunas personas que se movilizan y llegan a sacrificar su vida por una causa, en contraposición de otras que aceptan la comodidad de un sistema del cual se hacen siervos y defensores para garantizar así su bienestar.

Dos cuadros en los que la profundidad de la relación humana es inmensa y transciende cualquier convención social o política, cualquier dictado de la «corrección» que desde el poder se impone para mostrar, al desnudo, a hombres y mujeres con dudas y decisiones.

danza contemporánea
dantza garaikidea





**8 €** (bazkideak 6 €)

**testu barik / sin texto**

**55 min.**

www.dooscolectivo.es

**Sorkuntza eta testuak**
**Creación y textos:** Eva Guerrero

**Antzezlea / Intérprete:**
Garazi Lopez de Armentia

**Koreografia / Coreografía:**
Creación colectiva / taldean sortua

**Konposizioa eta musika interpretazioa**
**Composición e interpretación musical:**
Cristina Samaniego, Nerea Alberdi, Carla Sevilla y Yolanda Bustillo

otsailak **8** febrero **larunbata / sábado** **19:00**

# *Gorpuztu*

## Doos Colectivo

*Gorpuztu* orekaren bilaketaren inguruan dantza garaikidea eta zuzeneko musika uztartzen dituen ikuskizuna da.

*Gorpuztu* borroka da, oreka bilatzeko, lasai egoteko, zarata isilarazteko, zama eta errua arintzeko; azken finean, piztiak lasai lo egingo duen tokia bilatzeko borroka. Lan hau erlijio batzuen inguruko ikerketa batetik dator, eta, hain zuzen ere erlijio hauek une zehatz batzuetan egiten duten gorputzaren erabilera aztertzen du. Gorputza hainbat zatitan banatzen du, otoitzerako keinuak behatu eta berezkoak zaizkien kontzeptuak aztertzeko; besteak beste, errua, penitentzia, transzendentzia, maitasuna, sumisioa,...

*Gorpuztu* es un espectáculo de danza contemporánea con música en directo que habla sobre la búsqueda del equilibrio.

Es una lucha por estar en calma, por silenciar el ruido, por aligerar la carga y la culpa, por encontrar un lugar donde el animal duerma tranquilo. Nace de una investigación sobre el uso del cuerpo en determinados momentos en determinadas religiones. Dividiendo el cuerpo en varias partes, observando acciones de movimiento a la hora del rezo y pasando por conceptos como culpa, penitencia, trascendencia, amor, sumisión... presentes en diferentes religiones, nace *Gorpuztu*.





**4 €** (txikitxartelarekin 3 €)

**euskaraz**

**30 min.**
(+ 15 interakzioa)

**Koreografia eta dantzariak**
**Coreografia y bailarinas**:
Miren Lizeaga, Jone Amezaga.

**Dramaturgia:**
Rosa A. García Sardón.

**Musika / Música:**
François Couture.

otsailak **16** febrero **igandea / domingo** **11:00** **12:00** **18:00**

## *Ehuna*

### Txintxirrin Konpainia

1-5 urte bitarteko haurrak / Niños y niñas entre 1-5 años

Sormen prozesuak **Jone Amezaga del Frago** eta **Miren Lizeaga González** dantzari eta sortzaile gipuzkoarrak batu ditu, **Paraiso Antzerkia Taldea** eta **Dantzaz Konpainia**ren aholkupean. Ikusle txikiak mundu poetiko eta sentsible batean murgilduko ditu eszenak; gorputza, airea, jantziak eta ehunduren bitartez.

**Cristóbal Balenciaga** jostunaren sormenezko unibertsoa hartu dute oinarrian ikuskizuna osatzeko. Gorputza, jantzia eta airea. «Hiru elementu hauen batura perfektuaz osatzen da armonia» zioen Balentziagak.

Para crear este espectáculo **Jone Amezaga de Frago** y **Miren Lizeaga González** han contado con la colaboración de **Paraiso Antzerki Taldea** y **Dantzaz Konpainia**.

Una obra que sumergirá a los más txikis en un mundo poético y sensible y en sus escenas a través del cuerpo, aire, telas y texturas.

Este espectáculo está inicialmente inspirado en el universo del modisto **Cristóbal Balenciaga**. Cuerpo, ropa y aire. «La armonía es el unión perfecta de estos tres elementos» decía Balenciaga.

antzerkia teatro



**10 €** (bazkideak 7,5 €))

castellano

**80 min.**

www.pezlimbo.com

**Egilea eta zuzendaria**
**Dramaturgia y dirección:**
Maria Goiricelaya.

**Zuzendari laguntzailea**
**Ayudante de dirección:**
Ane Pikaza.

**Antzezleak / Reparto:**
Iñake Irastorza, Nagore González, Josune Vélez de Mendizabal, Haizea Baiges, Martxelo Rubio, Jontxu Martínez, Egoitz Sánchez.

otsailak **29** febrero **larunbata / sábado** **19:00**

# *El patio de mi casa*

## Pez Limbo Teatro

Bilboko Arriaga, Vitoria-Gasteizko Principal eta Donostiako Victoria Eugenia antzokien «**Antzerkigintza berriak**» ekimenaren baitan hautatutako proiektua.

Proyecto seleccionado en el marco de la iniciativa «**Nuevas dramaturgias – Antzerkigintza berriak**», impulsado por Teatro Arriaga de Bilbao, el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz y el Teatro Victoria Eugenia de Donostia.

Euskal Herria, ikastetxe bateko patioa. Jolasean ari dira zazpi pertsona. Ez dute elkar ezagutzen, baina zerbaitegatik daude hor, espazio horretan. Horrela hasten da ikuskizun hau, gure artean tabu den euskal gatazkaren errelatoari buruzkoa. Ez da errelato bakarra, asko dira. Gure izaera politikoa ezagutzera emateko daukagun beldurraz arituko gara, oraindik odol aztarnak dauden lurralde batean.

Besteei begietara begiratuz zauriak sendatu nahi dituen antzerki-ikuskizun bat da hau.

En el Pais Vasco, en el patio de un colegio. Siete personas juegan. No se conocen de nada, pero están ahí, en ese espacio...por algún motivo. Este es el arranque de un espectáculo que habla de aquello de lo que nunca hablamos: del relato vasco, que no es uno, sino muchos, y del miedo a revelar nuestra condición política dentro de un territorio donde hoy todavia pesa la sangre.

Un espectáculo teatral que quiere sanar heridas mirándonos a los ojos.

zirko berria
circo contemporáneo

doan! bazkideentzat
socios gratis





**10 €** (bazkideak 7,5 €)

**testu barik / sin texto**

**70 min.**

www.gropcirco.com

**Jatorrizko ideia eta zuzendaria**
**Idea original y dirección:**
Stefano Fabris

**Oholtzan / Intérpretes:**
Barbara Govan, Libby Halliday,
Shakti Olaizola, Nina Savidi.

**Musika sortzailea / composición musical:**
Nacho Peña.

**Laguntza artístikoa**
**Acompañamiento artístico:**
Óscar Diéguez.

martxoak **7** marzo **larunbata / sábado** **19:00**

# *Myres*

## Grop Circo

**Moirak** dira lan honen inspirazio iturria, alegia, gizakion patua ehuntzen duten jainkosak. Oholtzan mitologiaren mundua eta gizakion mundua bitan banatuta aurkeztuko da, ikusleak bertan ikusitakoaz gogoeta egiteko, adibidez, patuaz edo erabakimenaz. Zirko teknikak erabiliko dira kontakizunerako, porte akrobatikoa, bertikalak eta aireko-sarea, besteak beste.

*Grop*-ek, talderi izena ematen dion berbak «korapilo» esan nahi du italierako dialekto batean. Izen horrekin, **Fabris** zuzendariak, zirko-artista eta dantzari legez bizi izan dituen esperientzien eta landu dituen lengoaia eszenikoen arteko topaketa irudikatu nahi du. Izan ere, bere lanetan dantza eta zirkoa beti daude harreman eta kohesio estuan.

Espectáculo de circo contemparáneo inspirado en las **Moiras**, diosas encargadas de tejer el destino de los seres humanos. En la dualidad de la propuesta escénica entre mundo mitológico y mundo humano, se presentan al público diversas situaciones acerca del destino y el libre albedrío, a traves de disciplinas como portes acrobáticos, verticales y una red aérea.

*Grop* (cuyo significado es «nudo» en un dialecto italiano) simboliza el encuentro de las distintas experiencas y lenguajes escénicos por los que ha ido evolucionando el artista de circo y bailarín, **Stefano Fabris**, director de la compañía. En su trabajo están en constante relación y cohesión la danza y el circo.

familientzako antzerkia teatro familiar

**doan!** txikitxartela-rekin **gratis**





**4 €** (txikitxartelarekin 3 €)

**euskaraz**

**60 min**

https://gluglu.eus/marierrauskin/

**Egilea / Creación:**
Galder Pérez

**Zuzendaria / Dirección:**
Maitane Zalduegi Viar

**Antzezleak / Reparto:**
Itxaso Quintana, Andrea Covadonga, Sara Barroeta, Jon Casamayor, Iñaki Maruri / Ugaitz Alegría

**Ekoizpena / Producción:**
Glu Glu

martxoak **15** marzo **igandea / domingo** **12:00** **18:00**

# *Marierrauskin*

## Glu Glu Produkzioak

3 urtetik aurrera / A partir de 3 años

**Galder Perez**ek sortu du **Glu Glu** taldearentzat *Marierrauskin* ipuinaren moldaketa bitxia, garai berrietara egokitutakoa. Printzesen ipuin klasikoa egungo egoeraraino ekarri dute, familia osoari umeen arteko ezinbesteko elkartasunaz hitz egiteko. Beti umorearen eta musikaren laguntzaz. Horretarako **Nora**ren urtebetetze-festara eroango gaitu. Baina **Liz**ek dena mespretxatuko du; janaria, dekorazioa, Norak jasotak opariak, eta, bereziki, zapata pare ederra.

Original adaptación a los nuevos tiempos de *Marierrauskin* (*Cenicienta*), creada por **Galder Pérez** para la compañía **Glu Glu**. El clásico cuento de princesas vuela hasta la actualidad para hablar a toda la familia de la necesaria solidaridad entre los niños y niñas. Siempre con humor y música. Para lo que nos llevará hasta la fiesta de cumpleaños de **Nora**. **Lyz** despreciará todo de la fiesta; se burlará de la comida, la decoración y los regalos que ha recibido Nora, especialmente los zapatos.

helduentzako txotxongiloak
títeres para adultos-as





8 € (bazkideak 6 €)

testu barik / sin palabras

55 min.

www.javieraranda.es

**Sorkuntza eta manipulazioa**
**Creación y manipulación:**
Javier Aranda

**Zuzendari laguntzaileak**
**Asesores de dirección:**
Alfonso Pablo, Pedro Rebollo

martxoak **21** marzo **larunbata / sábado** **19:00**

# *Vida*

## Javier Aranda

Bi esku eta josteko otarraren unibertsoa. Eskuz egindako gauzek izaera propioa dute, eskuak izakion parte baitira, protagonistak; mugimendu, emozio eta biziaren sortzaileak. Noraezean doan otarre bat, bidaia bat... Edozein bazterretik, edozein otarretik, azaleratzen dira bizimuinak, bizi baliotsuak, berezi eta bakarrak.

**Javier Aranda** benetan iaioa da gauzak manipulatzen, eta hori bera erakusten dute bere 20 urteko lan ibilbide oparoan jasotako sariek eta aipamenek, bereziki lan honekin lortutakoek: *XXXI. Huescako Nazioarteko Feriako ikuskizunik onena, 2018ko Fetenen eskuratutako formatu txikiko lan onenaren saria*, eta urte bereko *Lleidako Txotxongiloen feria*n eskuratutako hirurak.

Dos manos y el universo de una canasta de costura. Las cosas hechas a mano tienen su propio carácter, las manos como parte de un ser, como protagonistas, como seres especiales que crean movimiento, emoción y vida. Una canasta a la deriva, un viaje... De cualquier rincón, de cualquier canasta emergen brotes de vida; vidas valiosas, particulares y únicas.

**Javier Aranda** es un maestro de la manipulación de objetos como demuestran los múltiples premios y reconocimientos labrados a lo largo de más de 20 años de profesión, entre los que destacan los obtenidos por esta pieza: el *Premio al mejor espectáculo de la XXXI Feria Internacional de Huesca*, El *Premio al Mejor Espectáculo de Formato Pequeño en Fetén 2018*, o los tres galardones cosechados por esta obra en la *Feria de Titelles de Lleida 2018*.

antzerkia teatro





**10 €** (bazkideak 7,5 €))

euskara

**90 min.**

www.txalo.com

**Egilea/ Autoria:**
Willy Russel.

**Antzezleak / Reparto:**
Aitziber Garmendia, Joseba Apaolaza.

**Zuzendaritza /Dirección:**
Begoña Bilbao.

**Euskarazko itzulpena:**
Martin Agirre.

apirilak **2** abril **osteguna / jueves** **19:00**

# *Rita*

## Txalo Produkzioak

**Frank** unibertsitateko literatura irakasleari, ikasle berri bat etorri zaio: **Rita**, pelukera. Bi mundu aparte.

Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore emandakoa, baina Ritaren agerpenak berpiztu egingo du. Ikasleak ikastea maite du eta irakasleak maitatzen ikasiko du. Sarritan, ikaslea bera izan ohi da irakaslerik onena.

Ikuskizun hau «Hitzez eta ahotsez» elkartearen laguntzarekin dago antolatuta, aurtengo gaia maitasuna izango delako.

**Frank** es profesor de literatura desencantado y **Rita**, su nueva alumna, una joven peluquera que quiere aprenderlo «todo».

Él es un poeta fracasado que ha tirado la toalla. Ella tiene ansias de estudiar y aprender. Él está dispuesto a enseñarle. Y cuanto más ama ella aprender, más aprende él a amar. Algunas veces los alumnos acaban convirtiéndose en los mejores profesores.

Este espectáculo se organiza en colaboración con la iniciativa «Hitzez eta ahotsez» cuyo tema para esta edición será el amor en todas sus modalidades.

antzerki amateurra
teatro amateur





**8 €** (bazkideak 6 €)

**euskaraz**

**75 min.**

www.karrikaantzerkitaldea.eus/

**Egilea / Autoría:** Talde lanean sortua / Creación colectiva

**Antzezleak / Reparto:** Uxuri Gallastegi, Maite López, Endika Zamalloa, Naiara López, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Mikel Uribelarrea, Maialen Magunagoitia, Eider Chaves.

**Zuzendaritza / Dirección:** Patricia Urrutia

apirilak **4** abril **larunbata / sábado** **19:00**

# *Karrikan*

## Karrika Antzerki Taldea

**Karrika**k aurkezten du *Karrikan*

«Hona nire herritxoa. Egunero, berdin-berdin. Heldu nintzenetik, beti berdin. Ezer berririk ez. Eta bat-batean... zer da hau, baina? Magia bitxi bat. Ez nuke sekula pentsatuko horrelakorik gertatu zitekenik. Ez da nik amestutakoa, baina nolabaiteko xarma aurkitzen ari natzaiola uste dut.»

Herriko bederatzi lagun karrika-buruan bueltaka. Bederatzi kutxa. Bakoitzari berea. Baina, eta egokitu zaigun kutxari egokitzerik ez badago? Eta tartetxo txiki-txiki, nimiño betez, bakar-bakarrik besterik ez bada ere, burua aterako bagenu? Berehalaxe bueltatuko gara barrura. Bukatzean, den-dena txukun lagako dugu, ostera bere lekuan. Hitz-ematen dugu.

**Karrika** presenta *Karrikan – En la calle*

«Esta es mi pequeña aldea, un lugar cada día ideal, Desde el día que llegué todo sigue igual que ayer. De repente, ¿qué es esto? Una magia extraña. Yo jamás pensé que iba a ocurrir. No es lo que yo soñaba, pero hay algo nuevo que empiezo a descubrir.»

Nueve vecines del pueblo deambulan por sus calles. Nueve cajas. Cada cual con la suya. ¿Pero, qué pasa si no puedes encajar en la que te ha tocado? ¿Y qué pasaría si... aunque sólo fuera por un pequeño instante casi imperceptible sacáramos la cabeza? Volveremos a nuestro sitio inmediatamente. Al terminar, recogeremos todo para dejarlo en su sitio. Lo prometemos.



familientzako
antzerkia
teatro familiar

**4 €** (txikitxartelarekin 3 €))

**euskaraz**

**50 min.**

**Egilea / Autoría:**
Hermanos Grimm.

**Bertsioa / Versión:**
Anartz Zuazua.

**Antzezleak / Reparto:**
Libe Aranburu, Kepa Errasti, Asier Oruesagasti.

**Zuzendaria / Dirección:**
Anartz Zuazua.

apirilak **5** abril **igandea / domingo**

**18:00**

# *Hansel eta Gretel*

## Borobil Teatroa

6 urtetik aurrera / A partir de 6 años

**Grimm Anaien** ipuin klasikoaren moldaketa barregarria.

**Hansel** eta **Gretel**en aita sukaldaria da. Bere jatetxeak arrakasta itzela dauka errezeta liburuak desagertzen diren arte. Inork ez du kozinatzen asmatuko ordutik aurrera. Inor ez da gogoratzen nola egiten den. Harrezkero mundu guztiak «Amonioburgesak» jaten ditu mundu osoan zabaldu diren milaka *Amonioburguer*retako batean. Harrigarriena da, ordea, une horretatik aurrera umeak desagertzen hasiko direla.

Divertida adaptación de este clásico cuento de los **Hermanos Grimm**.

El padre de **Hansel** y **Gretel** es cocinero en un restaurante de éxito hasta que desaparece su libro de recetas. Sin él nadie es capaz de cocinar, nadie recuerda cómo hacerlo. Así que todo el mundo comienza a comer «Amonioburguesas», el los miles de *Amonioburguers* que se han abierto desde entonces.

Aunque hay algo más extraño todavía... desde ese mismo instante comienzan a desaparecer niñas y niños.


TOPAKLOWN
2020
apirilak
8 -> 12
Durangoko Klown Topaketa * Encuentro de Clown de Durango
www.topaklown.com

# IKASTAROAK / CURSOS

**GARDI HUTTER** (Suitza) "Ser simple es complicado"
**ÉLISE OUVRIER-BUFFET & LOUIS GRISON** (Frantzia) "La comedia física y su escritura catastrófica"
**ÁLEX NAVARRO** (Katalunia) "El 1, 2, 3 del payaso"
**PAU BACHERO** (Balear Irlak) "La musicalidad del movimiento"
**JOAN ESTRADER** (Madril) "Humor para torpes"
**YOLANDA BUSTILLO** (Euskadi) "Eszenarako ahotsa eta kantua"
**ANITA MARAVILLAS** (Euskadi/Txile) "Está vivo! Laboratorio"
**CARLO MÔ** (Katalunia) "Clown habitado / cuerpo emocional"
**TEATRO INDIGESTO** (Zaragoza) "Jugamos a la impro deportiva"

**IZEN EMATEA/INSCRIPCIONES** **www.topaklown.com**
web gunean urtarrilaren 15-tik aurrera / desde el 15 de enero a través de la web

# IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS

| | |
|---|---|
| **X8** 22:00 | **TEATRO INDIGESTO** (Aragoi) **"SECUESTRADOS"**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **J9** 16:30 | **CLOWN&BERBA** (Charla/coloquio)<br>Musika Eskola. Sarrera doan / Entrada libre |
| **J9** 18:00 | **EL GRAN DIMITRI** (Andaluzia) **"THE LEGEND"**<br>Aurora Abasolo parkea |
| **J9** 19:30 | **L'ARBRE À VACHE** (Frantzia) **"M&MME POISEAU"**<br>Aurora Abasolo parkea |
| **J9** 22:00 | **TEATRO GORAKADA** (Euskadi) **"EL VIAJE DE ULISES"**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **V10** 20:00 | **CARLO MÔ** (Katalunia) **"EME"**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **V10** 22:00 | **GARDI HUTTER** (Suiza) **"JUANA LA VALIENTE"**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **S11** 20:00 | **JOAN ESTRADER** (Madril) **"MELONCOLÍA"**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **S11** 22:00 | **KLOWN KOMBAT**<br>San Agustin Kultur Gunea. 8 € |
| **D12** 20:30 | **IKASTAROEN ERAKUSTALDIA**<br>**MUESTRA de CURSOS**<br>San Agustin Kultur Gunea. Sarrera doan/Entrada libre |

**TOPA-BONO 35€** ikuskizun guztiak / todos los espectáculos

Bazkideak -25% dto. Socios/as



En San Agustin, Kultur Gunea exposición de fotos de **VICENTE PAREDES**en argazkien erakusketa San Agustin Kultur Gunean.

antzerkia teatro





**10 €** (bazkideak 7,5 €)

castellano

**80 min.**

www.territoriovioleta.com

**Egilea / Autoría:**
Pilar G. Almansa.

**Antzezleak / Reparto:**
Rosa Merás, Josu Eguzkiza.

**Zuzendaritza / Dirección:**
Cecilia Geijo.

apirilak **26** abril **igandea / domingo** **19:00**

# *El buen hijo*

## Territorio Violeta y Clásicos Contemporáneos

Sexu-jokabide arazo larri baten kontakizuna.

Psikologo batek ezer txarrik egin ez duela uste duen gizon baten burmuineko bide katramilatuak ibiliko ditu hainbat terapia saiotan. Zenbat forma daude gauza bera ukatzeko? gauza bera zenbatetan zuritu daiteke? Gertakizun berari buruzko zenbat bertsio eraiki ditzake pertsona batek?

**Kumea** behin eta berriz ibiliko da bere bizitzaren narrazioan gora eta behera, detaileak zehaztuz, zentzugabekeriak sortuz eta argia ekarriz ez bakarrik berak eginikora, baita bere buruaren funtzionamendu kodearen gainera ere,... Azkenean, amore eman arte? Ulertzen duen arte? Onartzen duen arte?... bortxatzaile bat dela. Eta, kumea espetxean dagoen arren, bera elikatu duen gizartea da benetan gatibu duen espetxea.

Retrato de un problema grave de conducta sexual.

A lo largo de sucesivas sesiones, una psicólogo recorrerá los intrincados senderos mentales de un hombre que cree que no ha hecho nada malo. ¿De cuántas formas se puede negar lo mismo? ¿Cuántas justificaciones se pueden encontrar al mismo hecho? ¿Cuántas versiones de una historia puede construir la misma persona? El **Cachorro** deambulará por su vida una y otra vez, reformulando detalles, generando incongruencias y aportando luz no solo a la tragedia que provocó con su acto, sino a cómo funciona su pensamiento, hasta que finalmente ¿se rinda?, ¿entienda?, ¿admita? que es un violador. Y aunque el Cachorro está en prisión, la sociedad que le alimentó es la auténtica cárcel.



familientzako antzerkia
teatro familiar

4 € (txikitxartelarekin 3 €))

euskaraz

50 min.

www.mariedejongh.com

**Egilea eta zuzendaritza**
**Autoría y dirección:**
Jokin Oregi.

**Antzezleak / Reparto:**
Ana Meabe edo Aiora Sedano, Maitane Sarralde, Juana Palacios edo Leire Omeñaca.

**Musika / Música:**
Adrián García de los Ojos

maiatzak **3** mayo **igandea / domingo** **18:00**

# *Ikimilikiliklik*

## Marie de Jongh

7 urtetik aurrera / A partir de 7 años

«Sorginei sekulako beldurra nien umetan, nola irudikatuko nukeen ba ni neu urteen joanean sorgin bihurtuko nintzela?»

**Ekhi**, umetan, hamaika arrazoigatik beldurtzen zen, baina baziren bi gauza guztien gainetik beldur izugarria eragiten ziotenak: norbait babes gabe dagoela ikusteak eta sorginek, mendi tontor bateko etxola zaharkitu batean bizi ziren emakume bakarti eta maltzurrek.

Ekhi, maite zuen armiarmatxoa salbatzeagatik, beldur ugari gainditzen joan zen. Hala kontatzen digu Ekhik berak, urteek aurrera egin ahala «sorgin» bihurtu den emakume edadetuak.

«De niña tenía un miedo atroz a las Brujas, ¿cómo podría haber imaginado que pasados unos años me convertiría en una de ellas?»

**Ekhi** era una niña más bien asustadiza, aunque había dos cosas que la asustaban por encima de todas las demás: ver que alguien está desamparado y las brujas, esas malas señoras solitarias que viven en chabolas desvencijadas en lo alto del monte.

Pero Ekhi, gracias a que salvó la vida de la arañita que tanto quería comenzó a superar muchos de sus miedos, tal y como nos lo contará ella misma, ahora ya una señora mayor convertida en «bruja».




*Adi!*

## *20tan3!*

### Asko gustatzen zaigu zu San Agustinen ikustea

- Horregatik behin baino gehiagotan etortzeko ***20tan3*** bonua proposatzen dizugu.
- 20 euroren truke zuk aukeratutako 3 emanaldiz gozatzeko aukera izango duzu.
- Zelan? Begiratu programazioa, aukeratu 3 lanik gustukoenak eta txarteldegian eskatu.

*¡Novedad!*

## *¡3x20!*

### Nos encanta verte en San Agustín

- Visítanos por lo menos 3 veces con el bono ***¡3x20!***
- Disfruta de 3 espectáculos por 20 euros.
- ¿Cómo? Ojea la programación, elige los 3 espéctáculos que más te interesen y pásate por taquilla.

# egin zaitez bazkide

# asóciate a san agustín

## Bazkide egiten bazara

- %25eko beherapena ikuskizun guztietan.
- Boletina eta informazio interesgarria etxean.
- 2 ikuskizun dohanik (Txiki-txartelarekin 2 haur ikuskizun).
- Beherapenak bazkideak dituzten SAREAko Euskal Antzoki guztietan.

## Si te asocias

- 25% de descuento en todas las actuaciones.
- Información domiciliada con boletín e información de interés.
- 2 espectáculos gratis al año (Txiki-txartela 2 infantiles)
- Descuento en todos los teatros que tengan socios/as de la Red pública de Euskadi (SAREA).

## Zelan egin San Agustineko bazkide

- **Dirutan ordainduta:** Inskripzio-orria bete eta San Agustinen bertan aurkeztu diruarekin batera.
- **Ordainketa helbideratua:** Inskripzio-orria bete, kontu korronte zenbaki eta guzti, eta San Agustinen aurkeztu edo postaz bidali.

## Cómo asociarse a San Agustín

- **Pago en efectivo:** rellenar este boletín de inscripción y entregarlo en San Agustin, junto con el importe correspondiente.
- **Pago domiciliado:** rellenar el boletín completo con la casilla de Nº CTA, así desde San Agustín se realizará el cobro de la cuota, y entregarlo en San Agustín o enviarlo por correo.

**bazkidea 25€ urteko al año**

**txikitxartela 5€ urteko al año**

Izena / Nombre ........................................ NAN / D.N.I. ........................

Deiturak / Apellidos ........................................

Helbidea / Dirección ........................................

Herria / Población ........................................ PK / C.P. ........................

Email ........................................

Jaso nahi duzu argibidea e-mail bitartez? / ¿Quieres recibir información regular vía email?
☐ Bai / Sí
☐ Ez / No

Telefonoa / Teléfono ........................................ Jaiotze data / Fecha de nacimiento ........................

Kontu korrontea (helbideratu nahi izan ezkero)
Número de cuenta (si se quiere domiciliar)

........................................
Sinadura / Firma

Txartela mota
☐ 13 urtetik gora / > 13 años (25€)
☐ txikitxartela (5€)

Sinatzaileak baimena ematen du izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuta egiteko, udalak erabiltzeko baino ez direnak
El/la firmante autoriza el tratamiento automatizado de los datos de carácter personal para su uso exclusivo por el ayuntamiento

........................................
*Sinadura / Firma (txikitxartelaren kasuan bakarrik / sólo para txikitxartelas)

* Sinantzaileak adierazten du bazkidetzen duen adin txikikoaren arduraduna dela, (ama, aita, ........................)
El/la firmante se declara responsable del/la menor de edad que asocia al teatro, en calidad de (padre, madre, ........................)

SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA
San Agustinalde, 12
48200 Durango
e-mail: sanagustin@durango.eus

Tel: 94 603 00 21

**wwww.durango.eus**

KULTUR AGENDA
App berria
DKB!
DURANGO KULTURAZ BLAI

/sanagustin.kulturgunea

@San_agustin_kg

@sanagustinkgdurango

## sarrerak / entradas

**Salmenta zuzena / Venta directa:**

- **ARTE ETA HISTORIA MUSEOKO LEHIATILAN**

  Asteartetik ostiralera / De martes a viernes
  10:00 - 13:00
  17:00 - 20:00

  Larunbata / Sábado
  11:00 - 14:00
  17:00 - 20:00

  Igandea / Domingo
  11:00 - 14:00

- **SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA**

  Emanaldiak baino ordu bete lehenago / 1 hora antes de cada función

**Kutxabanken bidez / Servicios Kutxabank**

Erabilera anitzetarako kutxazainak / Cajeros multiservicios

**www.kutxabank.es**

(Kutxabank-ek komisioa kobratzen du erositako sarrera bakoitzagatik)

(Estos servicios Kutxabank cobran comisión por entrada)

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

CENTRO CULTURAL San Agustin
AYTO. de DURANGO

l a g u n t z a i l e a k :

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

SAREA

durango irratia